

Gazteen Euskal Behatokiak aisia digitalari buruzko adierazle berria du

Euskadiko gazteen erdiak egunero egiten ditu aisia digitalarekin lotutako jarduerak (% 49,6%)


[Gazteen Euskal Behatokiak](#) adierazle berria gehitu du bere [estatistiketan](#), “**Aisia, kultura eta kirola**” izeneko atalean, hain zuzen ere. Adierazle hori aisia digitalari buruzkoa da.

Aisia digitalak honako jarduerak hartzen ditu: kontsolekin edo ordenagailuko edo sakeleko telefonoen jokuekin jokatu, bideoak ikusi *Youtuben*, bideoak igo Internetera edo blogetan idatzi.

Definizio honetatik kanpo geratzen dira euskarri digitalean zein ez egin daitezkeen jarduera tradizional batzuk, hala nola, musika entzun, irakurri edota filmak edo serieak ikusi. Egia da aipatutako aisia-jarduera horiek nabarmen hedatu direla, are gehiago *online* egitea, fitxategiak deskargatu barik, ahalbidetzen duten gailuak izanik, baina arreta guztia jarri dugu jokorako euskarri digital bereziak edota Interneteko konexioa nahitaez behar duten jardueretan.

Definizio horren arabera, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 49,6k egunero egiten dituzte aisia digitalarekin lotutako jarduerak.

Eguneroko aisia digitala hamar puntu handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino eta ohikoa da ere gazteenen adin-taldean (15 eta 19 urte bitartekoak).



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2016)

Adierazle honen baitan dauden jarduera ezberdinen artean pisu handiena daukana *Youtuben* bideoak ikustea da (gazteen % 43,1ek egunero egiten du). Jarraian kontsolekin edo ordenagailuko edo mugikorreko jokuekin jokatzeari dator (% 14,8k aitortzen duenaren arabera, egunero jokatzen dute holakoekin).

Nahikotxo gutxiago dira egunero Internetera bideoak igotzen dituztenak (% 2,2) edo egunero ere blogetan idazten dutenak (% 1,7).

Kasu guztietan gizonak eguneroko kontsumo handiagoa egiten dute emakumeek baino.

Egunero aisia digitalarekin lotutako jarduera ezberdinak egiten dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren eta adin-taldearen arabera						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
AISIA DIGITALA	49,6	54,4	44,6	53,0	50,7	45,9
Youtuben bideoak ikusi	43,1	47,1	38,9	45,3	44,9	39,8
Kontsolekin edo ordenagailuko edo mugikorreko jokuekin jokatu	14,8	18,2	11,3	19,0	11,9	13,8
Bideoak igo Internetera	2,2	2,6	1,8	2,0	2,7	1,9
Blogetan idatzi	1,7	2,3	1,1	1,6	1,8	1,7

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2016)

Asteroko kontsumoari erreparatuz gero, hau da, gutxienez astean behin egiten dena, zera ikus dezakegu: gazteen % 78,3k Youtuben bideoak ikusten ditu, % 38,5ek kontsolekin edo ordenagailuko edo mugikorreko jokuekin jokatzen dute, % 6,3k bideoak igotzen ditu Internetera eta gutxienez astean behin % 4,9k blogetan idazten dute.

Asteroko kontsumoari dagokionez, aurretik ikusitako gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak areagotu egiten dira. Izan ere, gutxienez behin astero kontsolekin edo ordenagailuekin edo mugikorreko jokuekin aritzen direnen gizonen portzentajeak emakumeena bikoizten du (% 50,7 eta % 25,8 hurrenez hurren).

Datuok 2016ko lehen hiruhilabetearen egindako inkestatik datoz. Bertan Euskadin bizi diren 1500 gazteei gai honi eta beste hainbati buruz galdetu zitzaion.

Adierazle hau eta aldagaien araberrako datuak Gazteen Euskal Behatokiaren [adierazle estatistikoaren sisteman](#) aurki daitezke, hain zuzen ere **Aisia, Kultura eta Kirola** atalean. Sistema honetan 100 adierazle baino gehiago daude eta hainbat gai jorratzen dira (biztanleria, hezkuntza, lana, emantzipazioa eta etxebizitza, osasuna, aisia, kultura eta kirola eta azkenik balioak eta jarrerak).